

2. ORDENANTZA

UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauaren 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak erabiliz eta Premiazko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauaren 11. artikuluan zehaztutakoari jarraiki.

II. GUTXIENEO KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua.

Udalerri honetan zergapetutako jardueretarako, Foru Aldundiak Zerga honen Tarifetan ezarri dituen gutxieneko kuotei 1.ERANSKINEAN azaltzen den koefizientea gehituko zaie.

3. artikulua.

Udalerrian Zerga honen menpeko jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikulua arabera gehituko kuotei 2. ERANSKINEAN adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. artikulua.

Ordenantza honen 2. eta 3. artikuluetan zehaztu diren gehikuntza-koefizientea eta kokapen-indizea ez zaizkie aplikatuko kuota probintzialei eta bereziei, eta ezta Foru Errekarguari ere.

5. artikulua.

Aipatutako 3. artikuluan esandako indizeak aplikatzeko, udalerriko kale, plaza eta auzoak kategorien arabera sailkatu dira 2. ERANSKINEAN.

III. ZERGA KUOTA

6. artikulua.

Tarifek finkatzen dituzten gutxieneko kuotek osatuko dute zerga-kuota, eta horri erantsi egingo zaizkio Ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluen arabera dagozkion koefizientea eta kokapen indizea eta, hala badagokio, baita Foru Errekargua ere.

6.bis. artikulua.

Ondorengo hobaria ezartzen da:



a) Hobaria aplikatu aurreko zerga aldian horren aurreko zerga aldiarekiko enplegua sortu eta mugagabeko kontratuarekin langile plantillaren batez bestekoa igo duten subjektu pasiboetarako dagokien kuotan % 5, 10 edo 20ko hobaria. Hobaria modu honetara aplikatuko da:

Langile kopurua % 5ean handituz gero, %10eko hobaria.

Langile kopurua %10ean handituz gero, %20eko hobaria.

Langile kopurua %20an handituz gero, %40ko hobaria.

Hobaria egiteko eskaera urteko errolda itxi aurretik egin beharko da. Urteko errolda behin betiko itxi ondoren aurkeztutako eskaerak ez dute ondorioz sortuko indarrean dagoen ekitaldian.

VI. GESTIO ARAUAK

7. artikulua.

1.- Zerga honen gestio, likidazio, bilketa eta ikuskapen ahalmenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dira, Udaltzarrak zehatutako modu, eduki eta neurrien arabera. Horretarako hitzarmena sinatu beharko dute ordenantza indarrean jarriko den urtea hasi baino lehen.

2.- Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Era berean, hitzarmen hori salatzen bada, aldizkari horretan bertan argitaratuko da.

3.- Artikulu honen 1. zenbakian erabakitakoa gorabehera, kuota probintzial eta bereziei dagokienez Foru Aldundiarenak izango dira han adierazitako ahalmenak.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren 1. eta 2. ERANSKINETAN ageri diren koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak 2015eko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Udaltzarak; **2016ko urtarrilaren 1ean** sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko du erregelamenduaren arabera aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean.

VI. ALDAKETEN HISTORIA

OSOKO BILKURAREN DATA ARTIKULUA	INDARREAN SARTU ZEN EGUNA	ALDATUTAKO
1991.10.07	1992.01.01	Ordenantza onespena
1992.10.26	1993.01.01	Udal koefizientea
1993.10.25	1994.01.01	EZ DA ALDATZEN
1994.11.10	1995.01.01	Udal koefizientea
1995.10.24	1996.01.01	Udal koefizientea
1996.10.15	1997.01.01	Udal koefizientea
1997.11.04	1998.01.01	Udal koefizientea
1998.10.29	1999.01.01	Udal koefizientea
1999.10.28	2000.01.01	EZ DA ALDATZEN
2000.10.18	2001.01.01	EZ DA ALDATZEN
2001.10.25	2002.01.01	EZ DA ALDATZEN



2002.10.31	2003.01.01	Udal koefizientea
2003.10.30	2004.01.01	Udal koefizientea
2004.10.28	2005.01.01	Udal koefizientea
2005.10.27	2006.01.01	Udal koefizientea
2006.11.02	2007.01.01	Udal koefizientea
2007.12.26	2008.01.01	Udal koefizientea
2008.12.31	2009.01.01	Udal koefizientea
2009.12.28	2010.01.01	EZ DA ALDATZEN
2010.10.27	2011.01.01	Udal koefizientea
27.12.2011	2012.01.01	Udal koefizientea
20.12.2012	2013.01.01	Udal koefizientea
29.10.2015	2014.01.01	2. art. eta 6-bis art.
28.10.2015	2015.01.01	EZ DA ALDATZEN
20.10.2015	2016.01.01	EZ DA ALDATZEN
18.10.2016	2017.01.01	EZ DA ALDATZEN
26.09.2017	2018.01.01	EZ DA ALDATZEN



2. ORDENANTZA

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

1 ERANSKINA

Foru Arauan finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra:

- Udal koefizientea: 2,1567
- Haztapen koefizientea, subjektu pasiboaren negozio zifraren kopuru garbiaren arabera.

Negozio zifraren kopuru garbia

KOEFIZIENTEA

(1/1993 FA, 11. art.) (uztailaren 4ko 4/2002 Foru Araua, 2. art.)

1.000.000,00 €-tik 5.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,29
5.000.000,01 €-tik 10.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,30
10.000.000,01 €-tik 50.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,32
50.000.000,01 €-tik 100.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,33
100.000.000,00 €-tik aurrerakoak.....	1,35
Negozio zifra garbirik ez dutenek.....	1,31

2 ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

<u>Kategoria</u>	<u>Indizea</u>
Bakarra	1